

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure ideia gune publikoetan (parkeetan, autobus-geltokietan, pasealekuetan eta hondartzetako sarreretan) zigarro-muturrak biltzeko edukiontzi bereziak jartzea da, erretzea baimenduta dagoen espazioetan betiere. Bildutako muturrak tratatu eta paper birziklatu ekologiko bihurtzen dira. Helburua tokiko ingurunea garbi mantentzea eta hondakin kutsagarriak murriztea da, aldi berean produktu erabilgarri eta iraunkor bat sortuz.

Beste produktu antzekoetatik bereizten gaituena da ingurumena gehien kutsatzen duten hondakinetako bat berrerabiltzen dugula, eta horren bidez jendeak egunerokoan erabil dezakeen paper ekologikoa sortzen dugula. Paperak kolore eta diseinu pertsonalizagarriak izango ditu, bezeroek euren gustura moldatzeko aukera izan dezaten.

Gainera, edukiontzien diseinua erakargarria eta ikusgarria izango da, eta sentsibilizazio-mezu bat eramango du: “Kutsadura gutxiago, bizitza gehiago.” Mezu horren bidez, herritarrak hondakinak modu arduratsuan biltzera eta ingurunea zaintzera animatu nahi ditugu.

